

## GURE AMA ON MAITATI GIPIZKOAK

*bere bular indartsuarekin guriro azitako seme leial  
gogoangarri anitz, nor ta non jaiok eta zer  
gisatakoak izan diraden argitasun garbia,  
Errien izenak abezekiro dirala.*

### I

**Albisturko** Errian arkitzen da Eche puruberetar Atodoko jatorrien sustraikia, zeñareu jabe ta nagusiak izan diraden beti leialac, ondraduak, eta serbitzo andiak egin izan dituztenak beren Ama doatsu Gipuzkoa-ekin Errege bidezkoen onerako. On Fermin Atodo baleroso-ak gudako egikera balio andiko askotan serbitzatu izan zeban, bere bizia irriskaturik, Felipe bigarrena, eta onek naitasun ezin gueiagokoa berari artu izan ziolako biraldu zeban Embajadore Erromara, Españaiko Andizki guztien artean autaturik.

On Pedro Atodo jende armatuarekin Errege Fededunak serbitzatzen izandu zan Granada artu bear zan denpora ectura larrikoan, zeña eza-gungarritu zan egikera gogoangarri artan.

**Alegeriako** Elizan Ama Birgiña Aranzazukoaren Aldare aurrean dago lurpetua Erri bereko seme Juan de Iria, zeñak bere ondasunetatik ifinizituen mundua mundu dan arte gogoango diraden onbideak. San Sebastianen izenarekin Elizacho bat jarri zeban eskale bideantentzako Arroztegi edo Hospital, gela bereziatua estudiante-entzat zebala, eta kapillania betikoa urtean eun ta berrogei ta amar dukateko errentarekin. Erriko umezurz ta dozailla beartuai urteoró emateko utzi

zituen laureun dukat. Urte guztietako Pazkua-etan Erri bereko jende beartuaren artean partitzeko eun dukat; eta bertako Eskola-maisuarentzako urtean eun ta berrogei ta amar dukat. Gizon ongille andi au ill zan milla sei eun ta amargarren urteko abenduko illaren seigarren egunean, eta bertan jaio ta bataiatua zan bezela, lurreratua izan zan Alegeriako Elizan.

Eliza berean Ama Birgiña Errosario Aldarearen ondoan obiatua arkitzen da Erri bereko seme Irakasdun On Nikolas Begirztain Baldonsella-ko Arkediano Iruñeko Eliznagusian izan zana, zeñak ifini zeban kapellania bat urtean eun dukateko errentarekin

IZTUETA

